



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

100. zenbakia

2021eko maiatzak 12 – maiatzak 27

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Euskararen indar- eta ahulezi-printzak Iparraldean aztergai Bat Soziolinguistika Aldizkariaren 118. zenbakian

Argitaratu berri da Ipar Euskal Herriko euskararen egoera soziolinguistikoari buruzko Bat Soziolinguistika Aldizkariaren zenbaki monografikoa. Bertan irakurgai diren egileak eta artikulatuak ikusgai dituzue esteka honetan.

Arnasguneetako gazteen hizkuntza-erabileraren gaineko solasaldia Euskadi Irratian

[Euskadi Irratia] Miren Dobaran HPS-ko sailburuordeak dio 'mudantza' egiten dutela gero, hartzen dutela kontzientzia baina klik hori egin dezaten lan egin behar dela. Ereduen garrantzia azpimarratu du Mikel Irizar Soziolinguistika Klusterreko lehendakariak.

"Herri-mailako ekimen bateratua behar da Soraluzen euskarak bizi duen gainbeherari buelta emateko"

[Plaentxia.eus] Neurketek erakusten dutenez, 2001etik euskararen erabilerak behera egiten dihardu Soraluzen, etenik barik. Hain zuzen, jaitsiera hori eragiten duten faktore nagusiak zein diren azaldu eta etorkizunean egoera horri buelta emateko bide posible batzuk azaldu zituen joan zen egunean Asier Basurto Soziolinguistika Klusterreko teknikariak.

Ikerketak

Eneko Bidegainek diasporak euskal herriari buruzko informazioa nola lortzen duen aztertuko du

[Etxepare Institutua] Jon Bilbao Katedrak badu ikerlaria aurtengo ediziorako. Eneko Bidegain izan da hautatua. Beraz, hilabeteko egonaldia egingo du abuztu eta abendu artean, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) University of Nevada, Renoko Center For Basque Studies egoitzan.

Euskararen ezagutzatik erabilerarako jauzia

Euskararen ezagutzatik erabilerarako jauzia: Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu eta toki-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko VI. planen arteko konparaketa (2018-2022)

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

"Language policy forum 2021", maiatzak 27 eta 28

[ingelesez, BAAL] Urtero ospatzen den hizkuntza politikaren inguruko mintegi hau ospatuko da maiatzak 27 eta 28an. Aurtengo hizlari gonbidatuak Joseph Lo Bianco eta Wendy Ayres-Bennett izango dira eta hitzaldi guztiak sarean egongo dira eskuragarri.

"Language Policy and Practices Series", hizkuntza politikaren inguruko hitzaldi zikloa

[ingelesez, Leideneko unibertsitatea] LUCL Hizkuntza Politika Ikerketa Birtualeko Mintegien zikloak hizkuntza politika eta praktikak ditu ardatz, Ipar eta Hego Globala aztertuz. Leideneko unibertsitateak Anik Nandirekin batera antolatzen duen egitasmoa da eta aurkezpenak sarera igotzen dituzte. Aste honetako gaia: Hegoafrikako hizkuntzen egoera.

Hamburg Unibertsitateko Udako eskola: hizkuntza-aniztasuna

[ingelesez, Universität Hamburg] Uztailak 5etik 30era ospatuko da munduko hainbat unibertsitatekin batera antolatu den udako eskola hau. Aurten jorratuko den gaia hizkuntza aniztasuna da, lau eremu ezberdinetatik ikusita.

Natxo Sorolla: «L'anàlisi quantitativa de text aplicada a l'anàlisi de xarxes socials» (Seminaris del CUSC-UB)

[katalanez, CUSC] CUSC-UB-ek antolatutako Soziolinguistika eta hizkuntza politikako mintegiaren 2020/2021 ikasturteko zortzigarren saioa, 2021eko apirilaren 30ean sarean

egindakoa. Saio honetan Natxo Sorollak sare sozialetako testuaren azterketa kuantitatiboa nola egin azaldu zuen.

M. Massaguer, A. Flors-Mas: «Contextos, motivacions i estratègies dels aprenents de català reeixits» (Seminaris del CUSC-UB)

[katalanez, CUSC-UB] CUSC-UB-ek antolatutako Soziolinguistika eta hizkuntza politikako mintegiaren 2020/2021 ikasturteko zazpigarren saioa, 2021eko martxoaren 26an online egindakoa eta orain argitaratua. Saio honetan katalanera berriro hurbildutako hizkuntza jarrerak jorratu zituzten.

Liburuak eta artikuluko zientifikoak

Artikuluak bidaltzeko deialdia: "Hizkuntza gatazken eragina hezkuntza esparruan"

[ingelesez, Yliana Rodríguez eta Adolfo Elizaincín - editoreak] Hezkuntza-inguruneetan gatazka-linguistika aztertzen duten artikulukoak bilatzen ditugu. Bolumenean ikuspegi teoriko eta metodologiko ugarietako lanak nahiko genituzke, baita jatorri eta diziplina-ikuspegi ezberdinetako egileak ere.

Kanadako Hizkuntza Ofizialen Legearen erreforma baterantz - Pierre Foucher

[frantsesez, Blog Revista Llengua i Dret] 2021eko otsailaren 19an, Kanadako Gobernuak Hizkuntza Ofizialen arduraduna den ministroak Kanadako Hizkuntza Ofizialen Legea modernizatzea helburu duen eztabaida dokumentua aurkeztu zuen.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Eusko Jaurlaritzak euskara ingurune digitalean sustatzeko 2021-2024 aldirako bide orria aurkeztu du

[Eusko Jaurlaritza] "Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024" Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde atal-Bereziak egindako txostena da. Lau lan lerro estrategiko, 10 gomendio eta 24 ekintza-proposamen biltzen ditu dokumentuak.

Euskara urtez urte ontzen Arabako Errioxan

[ARGIA] Arabako Errioxako bost lagun elkartu dira mahaiaren bueltan euskararen inguruan eztabaidatzeko. Bastidatik ibiltzen hasi eta Moredaraino, upategi handi batzuk eta turisten gorakada gorabehera, ez da paisaia gehiegi aldatu azken berrogei urtetan. Hizkuntza paisaiari begira jarriz gero, ordea, aldaketa ugari izan dira.

Linguapax erakundeak 2021eko Nazioarteko Sariaren deialdia ireki berri du

[katalanez, Linguapax] Linguapaxek Elkarrizketa eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Munduko Egunaren oroitzapenarekin bat egin nahi du. Hizkuntza aniztasuna defendatu eta sustatzeko helburuarekin, Linguapax 2021 Sariaren deialdia iragartzen dugu.

Livoniera: gutxi batzuek hitz egiten duten Europako hizkuntza

[ingelesez, BBC Travel] Livoniarrek ba ote zuten oraindik etorkizunari begiratzeko aukerarik? Gehiago jakiteko, livoniarren arbasoen aberrira joan nintzen, Letoniako mendebaldeko bazter basati eta urrunetara.

Miyotl, Mexikoko 68 hizkuntza indigenak ikasteko aplikazioa

[gaztelaniaz, +DEMEX] Mexikoko 68 hizkuntza indigenak desagertzeko arriskuan daude eta Miyotl aplikazioak hori saihesten lagundu nahi du, itzulpenarako eta hiztegia ikasteko tresna hau kaleratuz.



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

